

# M-ak

barkatu ama

**TXO, IXILDU!**  
(Kaki Arkarazo, X. Montoia)

Hi txo, ixil hadi behingoi!  
Hi txo, nazkatzen ari nauk.

Aspertzen nauk.  
Gogaitzen nauk.

Hi txo, ixildu, nahiko zeukeat.  
Ez duk azken gaupasa kontatu behar.  
Denok zekiagu ondo hire bizitza,  
hire azken atxurra eta aurrekoaz;  
zein ondo zaintzen duan hire sudurra;  
azidoak, aspita eta kokaina  
dituk betidanik mintzagai bakararak,  
horrexegatik naukak hain aspertuta.

Atzo kristorena!  
a ze mozkorral,  
denetatik sartu nian eta ederto,  
eta gaur berriro,  
ona zetorrek.  
Tabernatik tabernara argitu arte!  
Hi txo, ixildu, nahiko zeukeat!  
Bizi guztia habil lelo berberaz.

Jonkietaz sarritan gaizki esaka  
eta heu zer?, beraiek baino okerragoa.

Ixil hadi, ixil hadi!!

## MENUA

(Kaki Arkarazo, X. Montoia)

Zer nahiago duzu?  
hona menua,  
zer nahiago duzu?  
Kableak, kableak,  
hona kableak,  
Potroetan, potroetan  
egokienal!  
Toril, toril, toril, toril  
gustatzen zaizu?  
gozoa, gozoa  
ez al da horrela?  
Zer nahiago duzu?  
hona menua,  
zer nahiago duzu?  
Bainera, bainera  
hona bainera  
sartu ba, sartu ba,  
sartu burua!  
ura, pixa, kaka?  
bakarrik esan,  
aukera zurea  
geurea lana.

Zein ederra menua  
denetatik dute hemen  
zein aukera zabala  
laister itzuliko naiz.

Zer nahiago duzu?  
hona menua,  
zer nahiago duzu?

## MUNDUAN ZEHAR

(Kaki Arkarazo)

Kristonak gaituk  
Espazioa gureganatu diagu.  
Guztion gainetik gaudek  
hemendik erraza duk,  
goazen!  
Aizkorak desehortzi,  
labanak zorrotzu,  
nahiz hanka bana hautsi  
dena  
bideoz grabatu.

Airean gaudek  
denok airean.  
Airean gaudek  
munduan zehar.

Aizak Joxe gaur goizean  
Gerra berri bat hasi diagu Polinesian.  
Har itzak kamara argazki makina  
aireportura  
goazen!

Forratuko gaituk, hau duk negoziua motel!  
zenbat mortero behar!  
Kazetari, harmasaltzaile, mertzenari  
munduan zehar!

Rec-Play/Rec-Play

## DEABRUA TEILATUETAN

(Kaki Arkarazo, X. Montoia,  
Fernan Irazoki, Mikel Irazoki)

Gauero legez, deabrua irten da  
teilatuetatik paseiatzen da.  
Dena ikusten du begi zorrotzez,  
ezin zaito inoiz deus ezkutatu.  
Gure ahuleziak, gure gezurrak  
oro agerian uzten dizkigu.  
Gure ahaleginen alferra aurrean  
barre dagi eta abestuz doa:

RAKA, RAKA, RAKA, RAKA...

Renault berria erosi duen  
abertzaleak danone bat du  
eskutartean. Hau ikusita  
deabruak pozik barre dagi  
eta abestuz doa:

RAKA, RAKA, RAKA...

Drogaren kontra dagoen taldea  
sukalde erdian  
lerro batzu prestatzen ari da.  
Beren sudurrak erreak daude,  
eta deabruak guztiau daki (badoa)

RAKA, RAKA, RAKA...

## EUSKALDUNTZE METODO ARINA (X. Montoia)

Gaur egun euskara ikastea  
ez da batera zaila,  
hitz hauek ikasiz gero,  
euskalduna izango zara:  
(Papapapapapapa...)  
Egunon, kaixo, zer moduz?,  
hiru beltz eta gorri bi.  
Txuri azkar, etorri hona!  
Aitatxo, amatxo, aitona.  
Euskaraz badakizu,  
ez duzu gehiago behar.  
Euskaraz badakizu,  
ez al da oso erraza?  
Gora Athletic, Gora Errealia,  
Alaves eta Osasuna.  
Txapela eta txapeladuna,  
txistu eta danbolina!  
(Papapapapapapa...)  
ETB, KORRIKA, HERRI URRATS.  
Lehendakari eta Ertzantza.  
PNV, HE, EA.  
Gora Euskadi eta AGUR JAUNAK!  
Euskaraz badakizu,  
ez duzu gehiago behar.  
Euskaraz badakizu,  
ez al da oso erraza?

Euskaraz badakizu  
zertarako AEK?

## **MARK KNOPFLER NERE ATZETIK DABIL (X. Montoia)**

Goizero esnatu ahala, irratia piztu eta hor dago Mark. Egun osoa lan eta lan eta ez da inoiz nekatzen antza. Bere kitarra nola ez entzun, jainkoa legez dago edonon: bulago, pub, aurrezki kutxa, abioi, kotxe edo tren.

Knopfler, Knopfler zer egin dut?, zergatik zaitut beti atzetik? Knopfler, Knopfler ez jarraitu gizarajo bat naiz, ez besterik. Erotu egin ote naiz? ezin da erreala izan. Erotu egin ote naiz? hauxe amets-gaiztoa. Kalera noa kopetilun taberna ikusi eta sartu. Kafea eskatu bezain pronto hor daukat berriz nere aiduru -LELOA- Knopfler, Knopfler ez jarraitu, Knopfler, Knopfler mesedez hautsiko dizut kitarra alde egin hemendik zoaz, zoaz...!

## **PROMETEO EIZAGIRRE (Kaki Arkarazo, X. Montoia)**

Jaungoikoak, triangulu batetik begira dugun begi horrek, betirako zigortu nahi izan zuen Prometeo Eizagirre, eta hortaz etxea itokinez bete zion. Harrez geroztik, hor ari da Prometeo ontziak ipintzen eta hustutzen etengabe... Itokin bat kontrol-pean duela, beste berri bat azaltzen zaito teilatu-sapai madarikatuan.

Nahikoa da ezin gehiago eraman noiz arte egongo ote naiz honela?

Jainkoa, aski da, bidali heriotza! Ezin inoiz «El precio justo» ikusi. Ezin inoiz futbolera joan. Egun osoa ontzi bat eskutan. Gau edo eguna, zer axola?

Nahiko da ezin gehiago eraman noiz arte egongo ote naiz honela?

Jainkoa, aski da, bidali heriotza! Nahiz eta nere buruaz beste egiten sarritan saiatu nere zigor hau berak kendu artio alferrik daukat oro.

Nahiko da ezin gehiago eraman noiz arte egongo ote naiz honela?

## **BARKATU AMA (Kaki Arkarazo, X. Montoia)**

Gure amak ez nau uzten pakean sekulan, beti atzetik dabilkit kontrolatu nahiean. Ez da nitaz fidatzen gaiztoa naiz eta; horregatik zigorrak behar ditut antza!

Barkatu ama, ez dut berriro egingo!

Behin batean katua lepotik helduta sartu nuen bizirik etxeko labean. Ez zuen zorte handirik gizajoak izan. Bere zazpi bizitzak erre ziren bertan.

Barkatu ama, ez dut berriro egingo!

To! Beste batean berriz pattarra hartuta arrebaren esnean bota nuen mordioa ikustekoak ziren bere ibilkerak egun hartako atxurra betiko gogoan.

Barkatu ama, ez dut berriro egingo!

## **PISTOLAREN MINTZOA (X. Montoia)**

Hitzak dakartza haizeak basoaren aldetik; hitz berberak errekek behin eta berriro. Su inguruan bilduta inor ez da mintzo, zai eta zai gogaitua ze itxaropen?

Hitzak soberan daude pistolak mintza bitez.

Hiriko horma guztiak ilutzerakoan hitzez dira betetzen ixil-ixilean. So okerdun gizonak, gor eta mutu, zabortegi itzalak ehortzen dituzte.

Hitzak soberan daude Pistolak mintza bitez.

Hitzez kondentatua hitzez epaitua hitzez-hitz zigortua hitzez-hitz antzua. Munduko hiztegi oro ari da nigarrez. aditzak beldurtuak geldi-geldi daude.

Hitzak soberan daude Pistolak mintza bitez.

## **BLOODY MARY**

(Kaki Arkarazo, X. Montoia)

Kondalariak: Lehengo batean  
gauerdi aldean  
tabernan nintzen  
ohi bezala,  
garagardoa  
eskutartean,  
eta egia esan  
nahiko aspertuta.  
Halako batez  
tipo arraro bat  
eseri egin zen  
nere ondoan,  
zurbil-zurbila  
eta atxurtu antza,  
era bitxi honetan  
mintzo zitzaidan.

Banpiroak: Barkatu lagun  
nere ausardia  
baina norbaiti  
kontatu behar,  
banpiro nauzu  
eta ez da txantxa  
odola daukat  
jaki bakarra  
baina tamalez  
bakarrik ona  
onar dezake  
nere gorputzak  
zeu bezalako  
jende zintzoak  
bere zainetan  
ei daramana

Koroak: Zer egin bada? (lau bider)

Kondalariak: Ez kezka gehiago  
nere banpiro,  
irtenbidea  
dizut emango:  
kopa bat bodka,  
piper eta gatza  
bota itzazu  
odol gaiztoan,  
era honetan  
nahiz ankerrena  
egingo zaizu  
edan erraza  
politikoena  
edo apaizena  
edango duzu  
aurrerantzean

Koroak: Tori banpiro  
Gozoa dago  
Edan ezazu  
Hustu artio

Banpiroak: Mila esker lagun  
salbatu nauzu...

Koroak: ...

## **TXIPETAN MEMORIA**

(Kaki Arkarazo)

Lortu duk,  
hirekin naukak,  
Ni nauk,bai ni nauk  
hire izpiritu saindua.

Hiretzat  
natxiok sortua,  
hire neurri eta modura,  
zin dagit.

Hire datu guztiak  
nigan sartu dizkiat

Zer jakin nahi duk  
heure buruaz?,  
diru kontuak, maitasuna, lana,  
zer nahi duk?

Pizt ezak  
nire pantaila,  
akaso ahaztu duk hire maitearen  
telefono numerua?

Hire datu guztiak  
nigan dizkiat.  
Etzeukak sekreturik  
neretzat hire biziak.

Hire datu guztiak  
nigan sartu dizkiat

Zihur hago  
Libre haiz behingoz  
oso urrun iritsiko haiz  
niri esker.

Mundu gizon bilakatuko haiz  
hau duk hau!  
ze mixeri izango hintzake  
orain ni gabe!

Hire datu guztiak  
nigan gorde dizkiat  
hona hemen gakoia,  
txipetan memoria.

## **EDDIE COCHRANEN BALADA**

(X. Montoia)

Mila bederatzirehun eta hirurogei  
apirila hilea, eguna hamasei,  
Eddie Cochranek Bristolan jo zuen  
eta jo ondoren hotelera joan zen  
Sharon ondoan  
beti ondoan

Goizeko hirurak omen ziren,  
izerditan blai iratzarri zen.  
Ikaratuta pailoan  
korrika jasi zen oihu eginez:

Hiltzera noa,  
hiltzera noa!

Ez korrika egin  
oihurik ez Eddie  
ez korrika egin  
ez duanean espero  
gertatzen duk gero  
ximpleki.

Hurrengo goizean berebilez.  
aldeportu aldera abiatu ziren.  
Gurpila lehertu bapatean,  
Eddiek kriston kolpea hartu zuen.

Lepo erdian  
erdi-erdian

-LELOA-

Batheko San Martin ospitalera  
eraman zuten antxitxiketan  
ahalegin guztiak alferrikan  
hilik bait zegoen  
Eddie Cochran

Rocker handia  
Rocker handia

## **OPOR GUZTIETAKO ZALANTZA** (Kaki Arkarazo, X. Montoia)

Maleta ondo prestatu, ondo itxi eta jeitsi.  
Hor behean dago aita gure zai kotxearekin.  
Ander, goazen ba, goazen ba, goazen ba,  
haserretuko da.  
Eta hori ez da modurik hasteko oporrak.

Itxi ote dut gasa?  
behar dut jakin.  
Itxi ote dut gasa?  
horrela ez balitz?

Marea gora dator laster mugitu behar.  
Leku izpirik ez eta gainera albokoak  
goiz osoa jo-ta-ke pilota botaka  
eta hori gutxi balitz, dudu madarikatua

Itxi ote dut gasa?  
behar dut jakin.  
Itxi ote dut gasa?  
horrela ez balitz.

Ezin luzez iraun hondartzan patxadaz,  
eguzkipean jarri begiak itxita,  
berehala datozkit kezka eta zalantzak,  
bizitzen uzten ez nauen galdera ergela:

Itxi ote dut gasa?  
behar dut jakin.  
Itxi ote dut gasa?  
horrela ez balitz?

## **DESAGERTZE BITXIA** (Kaki Arkarazo, X. Montoia)

Komunera-kaka egitera-eraman nuen  
semea, seme txikia. Praxak erantzi,  
eseri, eta orduan, orduantxe, hasi zen  
telefonoa joka. Semea utzi eta gelara  
joan nintzne. Lagun bat zen. Berarekin  
hitz egiten amaitu ondoren, semaren-  
gana itzuli nintzen berriro. Komunan  
begiratu, bazter guztiak mihatu, baina  
arrastorik ez. Orduan, zulora hurbildu  
eta burua barruan sartuz oihu egin  
nuen: NON SARTU HAIZ?... baina  
erantzunik ez.

Garraxika hasi nintzen berriro:  
NON SARTU HAIZ?... alferrik.  
Inork ez zidan erantzun.

## **JAVIER PEREZ DE AZPEITIA: PIANOA** **FERMIN MUGURUZA: AHOTSAK**

### **HAIZE LAGUNTZA:**

**JOSETXO SILGUERO: SAXOA**  
**MIKEL VALCARLOS: TRONPETA**  
**JAVI SILGUERO: TRONPETA**  
**CARLOS HIPOLITO: TRONPETA BAXUA**

## **ASMOAK ASMO** (X. Montoia)

Laburra da bizitza,  
horrenbeste badakit,  
ezin da zai egon  
luzeegi.  
Amodioaren gozoa  
behin dastatuz gero,  
nola mantendu salbu  
bihotza.

Baina ez dut nigarrik egin nahi;  
ez, ez dut nigarrik egin nahi.

LELOA

Ez ditut malkoak zainduko  
altxor preziatu baten antzo.

Aspaldiko laztanak  
nahiz eta amultsuak  
ez dute asko balio  
oraingoan.  
Gaubela mingarrian  
zein negu gorrian  
norbait behar da beti  
alboan.

LELOA